

Lana duten EAeko 16 eta 34 urte bitarteko gizonen hileko soldata garbia emakume gazteena baino 200 euro altuagoa da

Emakume gazteek gizonen baino neurri handiagoan dute lanaldi partziala familia-betebeharrak direla-eta

Otsailaren 22an Emakume eta Gizonen Soldata Berdintasunaren aldeko Eguna dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) EAeko gizon eta emakume gazteen enpleguari eta soldata desberdinatunari buruzko datu batzuk zabaldu nahi ditu.

Aztertutako datuak Gazteen Euskal Behatokiak berak 2011ko azaroan egindako ikerketa batetik datoz, "[Gazteen enplegua EAEn](#)" izenekoak, hain zuzen ere. Ikerketa horrek 16 eta 34 urte bitarteko EAeko 1927 gazteri beren etxeetan egindako inkesta bat hartzen du oinarri.

EAeko 16 eta 34 urte bitarteko gazteen erdiak (% 49) lanean daude eta beste % 31 ikasten. Azken talde horretan % 4 ikasten eta lanean dabilta, aldi berean. Langabeziak % 18ri eragiten die, gehiago gizon gazteei (% 20), emakume gazteei baino (% 14). Etxeko lanak jarduera nagusia da emakumeen % 4rentzat; ez da gizonen aurkitu kategorian horretan.

Lanean dabilta gazteen erdiek kontratu mugagabea edo finkoa, etenekin, dute (% 53) eta heren batek aldi baterakoa (% 34). % 9 autonomoak dira. Kontraturik gabe lanean dabilta gazteen proportzioa % 3koa da. Egoera hori ohikoagoa da emakumeen artean (% 4), gizonen artean baino (% 1).

Lanaldi osoan aritzea da ohikoena: lanean daudenen hiru laurden lanaldi osoan dabilta (% 75). Gainerako % 25 lanaldi partzian dabilta, eta egoera hau aruntagoa da emakumeen artean (% 35) gizonen artean baino (% 14).

Lanaldi partzian dabilta gehienek (% 58) diote ez dutela lanaldi osoan lanik aurkitu. Lanaldi partzian dabiltaen % 15 baino ez daude horrela euren borondatez. Lana eta familia uztartzeko zailtasunak % 9k aipatu dituzte, familia-betebeharrei egozten baitiete lanaldi osoan lanean ez egotea. Lanbide-garapenaren oztopo horrek emakumei eragiten die, nagusiki, oraindik ere: lanaldi partzian lanean ari diren emakumeen % 13k familia-betebeharrak direla-eta egiten dute, eta gizonen % 1ek.

Lanaren egokitasun-maila oso altua da lan egiten duten gazteengan: hamar gaztetik zazpi uste dute garatzen duten lana euren kualifikazioari egokitzen zaiola (% 70). Laurden baten iritziz, ordea, lana prestakuntza-mailaren azpitik dago (% 24); azkenik, % 2ren ustez, lana kualifikazioaren gainetik dago. Oraingoan ere, alderik nabarmenenak sexuaren arabera dira: emakumeek lanaren egokitasun-maila txikiagoa dute, gizonen baino 5 puntu azpitik.

Batez besteko soldata hilean 1116 eurokoa da. Gizonen ordainsari altuagoa dute, eta euren soldata garbia emakumeena baino 200 euro garaiagoa da.

Beraz, ondoriozta dezakegu emakumeen langabezia-tasa gizonena baino apalagoa dela baina emakumeen lan-baldintzak okerragoak direla: emakume gehiagok lan egiten dute kontraturik gabe, emakume gehiagok dute lanaldi partziala eta arrazoen artean gizonen baino neurri handiagoan aipatzen dituzte familia-betebeharrak; bestalde beren lanaren egokitasun-maila gizonena baino baxuagoa da eta hileko soldata garbia ere txikiagoa da.